# MUNGIARRA

MUNGIA UDALA

www.mungia.org

## Gardentasuna eta gertutasuna

Egoitza Elektronikoak udalaren web-orriaren bidez tramiteak egiteko erea eskainiko dau

## Gardentasuna eta gertutasuna

Whatsapp zerbitzu barria Udalean

## Jaiak

Txosnak, herritik parajeago



# Goieta Plazan jolasleku estalia egiteko aurre-proiektua










57

abril 2017ko apirila

Kaixo mungiarra:

Barriro gatortzuz egiten dogunaren barri emoten. Legealdi honek laster beteko dauz urte bi, eta atzera begiratuta, balorazino baikorra egiten dogu. Gure zerbitzuak mantendu eta hobetuten goaz, gure kaleak eta auzo errepideak ondo zainduten jarraituten dogu, gure gizarte zerbitzuak, batez bere gure nagusientzakoak, gero eta zabalagoak dira, agenda sozio-kulturala ekintzaz beteta dago…. Herri bizi eta solidarioa gara eta etorkizunari ilusinoz aditu ahal deutsagu.

Proiektu asko daukaguz esku artean. Batzuen barri hemen emoten deutsuegu orriotan. Udala eta bere beharra gero eta ezagunago, gardenago eta herritarrentzat hurbilagoa izatea da-eta gure helburu nagusietako bat. Horrexegaitik jartzen dogu martxan egoitza elektronikoa, hau da, bertora etorri barik izapide batzuk egin ahal izateko, baita 010 eta 092 telefono zerbitzuak bere; horren ganera, Udal aurrekontuen zehaztasunak jakiteko aplikazinoa laster egongo da erabilgarri eta umeentzako jolas gune estaliaren aurreproiektua bere aste gitxi barru aurkeztuko dogu.

Gure alkarteakaz eten barik gabilz beharrean. Korrika bere gure herritik pasatu da eta harrera itzela egin deutsagu barriro, eta laster Ibilaldia ospatuko dogu.

Ilusinoz beteten gaituan beste proiektu bat "MUNGIA LAGUNKOI" da. Honen bidez, gure herriari, pertsona nagusien ikuspuntu eta eskarmentutik begirada sakon bat emongo deutsagu, prozesu parte-hartzaile baten bitartez, eta seguru gagoz danontzako onuragarriak izango diran ideiak eta proiektuak sortuko dirana bertatik.


Ager Izagirre, Mungiako Alkatea

Argi dago, ba, gogotsu gabilzala. Zelan ez, gure herriaren eta berton bizi garan pertsonen onerako egiten dogu behar eta.

Besarkada bat.

*Ager Izagirre, Mungiako alkatea*

Kaixo mungiarra:

Esta legislatura pronto cumplirá dos años y, mirando atrás, hacemos una valoración positiva. Mantenemos y mejoramos nuestros servicios, cuidamos nuestras calles y carreteras, caminos de nuestros barrios, nuestros servicios sociales, la agenda sociocultural está llena... Somos un pueblo vivo y solidario.

Uno de nuestros principales objetivos es que el Ayuntamiento y su trabajo sean cada vez más conocidos, transparentes y cercanos. Asimismo, miraremos nuestro pueblo desde la perspectiva de nuestras personas mayores para plantear ideas beneficiosas, a través de un nuevo proyecto, "MUNGIA, PUEBLO AMIGABLE".

Está claro que trabajamos con ganas. Cómo no, si es por el bien de Mungia y las personas que lo habitamos.

Un abrazo.

*Ager Izagirre, alcalde de Mungia*

# Goieta Plazan jolasleku estalia egiteko aurre-proiektua

**Herritarren eretxia hartuko da kontuan gune horren hornidura eta konfigurazinoa erabagiteko**

Umeentzako jolas-guneak hobetzeko eskariak sarri jasoten doguz Udalean. Norbanako, familia eta gazteen ardurak entzunda, eta beti bere herritarren beharrizanak asetzeko helburuari jarraituta, laster, estalitako **300 m2-ko joko-zona** bat eraikiteko aurreproiektua aurkeztuko dogu jendaurrean.

Honen bidez, bai gure herriko umeei, bai euren gurasoei bere, **eguraldiak laguntzen ez dauen egunetan erabilgarria izango dan jolasleku bat eskainiko jake**, bizi-kalidadea hobetzeko.

Goieta Plazan dauden haurren jokoak eta zoladura bere osotasunean ordezkatuko dira.

**GOIETA PLAZAN DAUDEN HAURREN JOKOAK, ATERPEA ETA ZOLADURA BERE OSOTASUNEAN ORDEZKATUKO DIRA.**

Jolas-gune honen instalazinoa bideratzeko, Udaleko teknikariek azterketa sakona burutu ostean, espazio hau jartzeko lekurik egokiena **Goieta Plaza** dala ondorioztatu da, **erdigunean dagoalako, olgetako eremu zabal eta laua dalako eta irisgarritasun ona daukalako**. Goieta Plazako jolas-gunea goitik behera aldatuko da, baita gomazko behea bere. Barriztu egingo dogu eremu hori.

Konfigurazinoa eta parkearen hornidura definitzeko **herritarren eretxia hartuko da kontuan**.



Goieta Plazak baldintza ezin hobeak beteten ditu  jolas-gune barria jartzeko.

## Anteproyecto zona de juegos cubierta en Goieta Plaza

La mejora de los juegos infantiles es una de las peticiones que más frecuentemente llega al Ayuntamiento. Escuchando a personas, familias y jóvenes, y con el objeto de satisfacer las necesidades de nuestras vecinas y vecinos, próximamente presentaremos un **anteproyecto para construir una zona de juegos cubierta de 300 m2**.

Con ello, posibilitaremos que las niñas y niños de nuestro pueblo, así como sus madres y padres, dispongan, en el casco urbano, de **una zona de juegos a la que poder acudir en los días en los que el tiempo no acompaña**, mejorando así su calidad de vida.

**LOS JUEGOS , LA CUBIERTA Y EL PAVIMENTO YA PRESENTES EN GOIETA PLAZA SERÁN SUSTITUIDOS EN SU INTEGRIDAD.**

Tras un estudio realizado por el personal técnico municipal a la hora de definir la forma de instalar este equipamiento lúdico en el municipio, se ha concluido que el espacio idóneo para la colocación de esta zona cubierta de juegos es **Goieta Plaza**, por **su ubicación en el casco urbano, su explanada y su accesibilidad**. El conjunto de juegos infantiles de Goieta Plaza será sustituido en su integridad, al igual que el pavimento de goma sobre el que se asienta. Se hará una reposición completa.

**Se tendrá en cuenta la opinión de las vecinas y vecinos** a la hora de definir la configuración y dotación del parque.

# Kaleetako bide-zuloen konponketak

Herriko bide eta kaleek ezinbesteko garrantzia daukie gure eguneroko bizitzan. Horren jakitun, bide-zuloak konpontzeko kanpaina gauzatu dau Udalak, herritarrei bizimodua erraztu eta gure kaleak baldintza egokietan eukiteko. Kanpaina horren barruan sartzen dira argazkietan agertzen diran kaleetako mantentze-lanak. Obra horreen aurrekontua 35.000 eurokoa izan da.

2017an zehar herritarren bizi-kalidadea eta segurtasuna bermatzeko beharrean jarraituko dau Udalak.

Udalean aurkitzen diran beharrizanen arabera, kale eta bide gehiago konpontzen joango gara. Oraingo udabarrian bere, bide-zuloak konpontzeko beste kanpaina bat iminiko da martxan.

Desde el Ayuntamiento se ha llevado a cabo la reparación de baches de estas calles, con el fin de facilitar la vida a vecinas y vecinos y mantener nuestras calles en buen estado.


Garraketa kalea


Iturribaltzagako bidea


Mastibarrena kalea


Landetxo kalea


Usandizaga Eresgille kalea


San Martin bidea


Skatepark barrirako sarbidea

# Semaforoak: argi-seinaleak + soinu-seinaleak

Herri inklusibo baten bizi gura dogu. Hori dala-eta, urtarrilean soinu-seinaleak sortzeko dispositibo batzuk imini dira semaforoetan, ikusteko zailtasunak daukiezanei bizimodua apur bat errezteko.

Soinu horreek entzun ahal izateko, **soinu-ohartarazlea aktibatu beharko da ONCEk homologatutako mando baten bidez**. Mando hori ONCEren bitartez eskuratu ahal izango dabe erabiltzaileek.

Mandoak memoria dauka bere funtzionamenduan eta alarmaren zirkuitu osoa birritan egingo dau.

**Semaforoak hiru soinu desbardin egingo ditu:**

1. Gorri dagoanean, "ezin zara pasatu" adierazoten dauena.
2. Berde dagoanean, "pasatu zintekez" adierazoten dauena.
3. Berde egon arren denpora-tarte laburra gelditzen jakonean, "gitxi falta da" adierazoten dauena.



Mungia hace especial hincapié en lograr la mayor accesibilidad para personas con alguna discapacidad física. Por ello, **se han instalado semáforos sonoros para que las personas invidentes**, o que tengan dificultad para ver, **sepan cuándo pueden cruzar** la calle con seguridad.

Estas personas podrán disponer de un mando a distancia para que el sonido sólo se active cuando lo requieran. El mando y el control remoto están homologados por la ONCE.

# Sede Electrónica para realizar trámites a través de la web municipal

**Permite hacer gestiones sin salir de casa**

Desde el Ayuntamiento llevamos meses trabajando en el plan de modernización donde uno de los proyectos de mejora servirá para potenciar las herramientas telemáticas y facilitar la interacción entre el Ayuntamiento y las y los mungiarras de forma cómoda y sin desplazamientos.

**ESTE SERVICIO PERMITE A LAS Y LOS MUNGIARRAS EFECTUAR GESTIONES SIN QUE TENGAN QUE ACUDIR PERSONALMENTE AL CONSISTORIO.**

**Está previsto que paulatinamente se incorporen nuevos trámites y gestiones electrónicas.**

Para ello, se pondrá en marcha la **Sede Electrónica** durante el primer semestre de 2017, lo que facilitará a las vecinas y vecinos la realización de trámites electrónico-administrativos a través de la web municipal.

Está previsto que paulatinamente se incorporen nuevos trámites y gestiones electrónicas.

Así, las **solicitudes de Enterado de Obra** y **Volantes de Empadronamiento** se podrán tramitar a través de la Sede Electrónica.

Este nuevo servicio supone un **avance importante para la ciudadanía en lo relativo a la administración electrónica y la transparencia.**

**Se podrán realizar consultas sobre el estado de tramitación de expedientes y conocer los pasos a seguir para cada uno de los procedimientos administrativos.**

## Egoitza Elektronikoak udalaren web-orriaren bidez tramiteak egiteko erea eskainiko dau

Udalean hileak daroaguz erreminta telematikoei indarra emoten eta Udalaren eta mungiarren arteko hartu-emona erraztuko dauen Egoitza Elektronikoaren proiektua garatzen eta hobetzen.

**ZERBITZU HONI ESKER, HERRITARRAK TRAMITEAK EGIN AHAL IZANGO DITU UDALETXERA ERA FISIKOAN JOAN BEHAR IZAN BARIK.**

Egoitza Elektronikoa 2017ko lehen sei hilabeteen barruan jarriko da martxan eta horrek erea emongo deutse herritarrei izapide elektroniko-administratiboak udal web-orriaren bidez egiteko.

Horretara, **Obra-jakinarazpena eta Errolda-orriak** Egoitza Elektronikoaren bidez tramitau ahal izango dira.

Zerbitzu barri honek aurrerapen handia dakar administrazino elektroniko eta gardentasunaren arloan.

# Visualizador de los presupuestos municipales

**Estará disponible en la web del ayuntamiento**

Próximamente se mostrarán en la web municipal los presupuestos municipales de 2017 explicados **desde una forma didáctica hasta un nivel técnico.**

Se trata de una visualización interactiva de los presupuestos municipales para que vecinas y vecinos puedan explorar a través de la web con facilidad.

**PROMOVIENDO SIEMPRE LA TRANSPARENCIA, ESTE VISUALIZADOR AYUDARÁ A ENTENDER CUESTIONES COMO DE DÓNDE VIENEN LOS INGRESOS Y A QUÉ SE DESTINAN.**

Esta actuación se suma a otras iniciativas del Consistorio para aprovechar todas las potencialidades de las tecnologías y fomentar la transparencia y la participación ciudadana.

Toda la información proporcionada a través de este visualizador de presupuestos ayudará a que nuestras vecinas y vecinos entiendan, de una forma sencilla y visible, puntos como qué es un presupuesto municipal, qué papel tiene el Pleno del Ayuntamiento sobre el Presupuesto, de dónde se reciben los ingresos, en qué se gasta o para qué se emplean y qué es un remanente, entre otros.

**Esta actuación se suma a otras iniciativas del Consistorio para aprovechar todas las potencialidades de las tecnologías y fomentar la transparencia y la participación ciudadana.**

## Udal-aurrekontuak ikusteko erreminta

**Udal-webgunean egongo dira ikusgai**

Laster ikusi ahal izango doguz 2017ko udal-aurrekontuak udal-webgunean; hain zuzen bere horretarako ezarri dan erreminta bati esker, **era didaktiko batetik abiatuta maila tekniko batera helduta.**

Honek edozein herritarrek Udal-aurrekontuak era interaktibo eta errazean aztertzeko balioko dau.

**GARDENTASUNEAN PAUSU BAT AURRERA EGINDA, DIRU-SARRERAK NONDIK DATOZAN ETA ZERTARA BIDERATZEN DIRAN ULERTZEN LAGUNDUKO DAU TRESNA HONEK.**

Honi esker lortu geinken informazinoak gure herritarrei lagundu egingo deutse era erraz eta ikusgarrian, kasu baretako, honen moduko gaiak hobeto ulertzen: zer dan udal-aurrekontu bat, ze ardura daukan Udaleko Osoko Bilkurak udal-aurrekontuan eta nondik jasoten diran eta zertan gastetan diran diru-sarrerak, besteak beste.

# Udalera eta Udaltzaingora deitzeko telefonoak

**010**
**Udala**
Ayuntamiento

**092**
**Udaltzaingoa**
Policía Local

010 eta 092 izango dira Mungiako Udalagaz eta Udaltzaingoagaz hartu-emonetan jartzeko telefono zenbaki barriak.

Zenbaki horreen bidez, herritarrek errazago eta arinago lortu ahal izango dabe Udalagaz kontaktatzea. Telefonook apirilean aktibatuko dira.

## Contacto con el Ayuntamiento y Policía Local

010 y 092 serán los nuevos teléfonos para contactar con el Ayuntamiento y la Policía Local de Mungia, respectivamente.

Estos números permiten a la ciudadanía un contacto aún más rápido y estarán activos a partir de abril.

# Kutxazain automatiko bat iminiko da HAZen

Udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), ohiko zerbitzuez ganera, kutxazain automatiko bat egongo da apirilaren amaieratik gora.

Kutxazainaren bidez herritarrok geuk geutara egin ahal izango doguz tramitazino jakin batzuk, kasurako: erroldatze-bolanteak eskuratu edo ordainketak egin. Hori bai, makina horrek apurka-apurka zerbitzu gehiago eta zabalagoa eskainiko dau.

7:30-22:00 ordu arteko zerbitzua (eten bakoa) eskainiko dauen kutxazain horri esker, Udalak herritarrentzako zerbitzuak hobetzen jarraitzen dau.

## Instalación de un cajero automático en el SAC

El Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC) del Ayuntamiento contará con un nuevo cajero a finales del mes de abril.

A través de este, las y los mungiarras comenzarán a auto-gestionar trámites como volantes de empadronamiento y pagos de recibos, aunque en un futuro la máquina contará con más servicios.

Así, el Ayuntamiento sigue mejorando los servicios a la ciudadanía con esta máquina que estará en funcionamiento de 7:30-22:00.

# Zergadunentzako egutegia

## Calendario para contribuyentes

Las vecinas y vecinos de Mungia podrán acceder, a través de la web municipal, al Calendario para contribuyentes para que puedan cumplir de manera sencilla con sus compromisos fiscales accediendo a la información necesaria.

El calendario fiscal para el ejercicio 2017 es una guía para conocer los detalles de los trámites que deben realizar con el Ayuntamiento de Mungia.

**¡ATENCIÓN!** Periodo voluntario de pago del Impuesto de Vehículos: del 3 de abril al 3 de mayo, ambos inclusive.

Mungiako bizilagunak *Zergadunentzako egutegira* udal web-orritik sartu ahal izango dira. Egutegi horren bidez sano modu errazean lortuko dabe euren konpromiso fiskalak beteteko beharrezkoa dan informazinoa.

**ADI!**
Ibilgailuen ganeko Zerga ordaintzeko epea: apirilaren 3tik maiatzaren 3ra, biak barne.

2017ko egutegi fiskal hori gidaliburu bat da, Mungiako Udalagaz egin beharreko tramiteen ganeko informazino zehatza emoten dauena.



# Whatsapp zerbitzu barria

## Nuevo servicio de Whatsapp

Seguimos trabajando para acercar cada vez más los servicios municipales a la ciudadanía. Para ello, se ha puesto en marcha el nuevo servicio Whatsapp del Ayuntamiento.

### ¿QUÉ HAY QUE HACER PARA ACTIVAR ESTE SERVICIO?

1. Introducir en la agenda del teléfono móvil el número 688.883.535.
2. Enviar un mensaje de whatsapp con la palabra ALTA al número 688.883.535.
3. Recibirá un whatsapp de bienvenida.

Herritarrentzat udal zerbitzuak erabilerrazak eta parajekoak izatea da gaur egun daukan helburutako bat, eta horrexetan jarraitzen dogu lanean. Horren adibide da Udalak martxan imini dauen Whatsapp zerbitzu barria.

### ZER EGIN BEHAR DA ZERBITZUA AKTIBATZEKO?

1. Telefono mugikorraren agendan 688.883.535 zenbakia gorde.
2. Whatsapp bat, "ALTA" berbea idatzita, bota 688.883.535 zenbakira.
3. Ongietorria emoten deutsun whatsapp bat jasoko dozu.




# Udal webgunetik kontsultatu zeinkez guardiako farmaziak eta txakurrak adoptatzeko zerbitzua




Udal web-orrian begiratu daiteke –kontsulta unean– zeintzuk diran guardiako farmaziak. Informazino hori udal web-orriaren hasierako orrian dago, *Zerbitzuak* izeneko atalean.

**www.mungia.org/farmacias**



Udal web-orriaren bitartez, eta Mungiako Udalaren erantzukizunpean, herritarrei erraztu egin gura jake Sopelako La Casa del Perro izeneko txakur-etxean dagozan animalien ganeko informazino praktikoa eskuratzea. Horretara, txakur bat lortzeko interesa daukanak erea izango dau berak gura dauen animalia hori adoptatzeko, beti bere, gogoan izanda hartu-emon horrek erantzukizun bat eskatzen deutsola jaubeari.

**www.mungia.org/txakurren-adopzioa**

## Consulta las farmacias de guardia y el servicio de adopción de perros en la web municipal

La web del Ayuntamiento cuenta con el servicio de farmacias de guardia que informa a la ciudadanía de las farmacias que se encuentran de guardia en el momento de la consulta. Esta información aparece en la página inicial de la web municipal, en el apartado *Servicios*.
**www.mungia.org/farmacias**

A través de la web municipal se pretende facilitar el acceso de las y los mungiarras a una información práctica de los perros que se encuentran, bajo la responsabilidad del Ayuntamiento de Mungia, en *La Casa del Perro* de Sopelana. De esta forma, quien tenga interés puede adoptar el animal que desee en el marco de una relación responsable entre animal y propietaria/propietario.

**www.mungia.org/txakurren-adopzioa**

# La tasa de desempleo continúa descendiendo

**236 personas han sido insertadas en el mundo laboral en 2016**

Mungia finalizó marzo de 2017 con 984 personas desempleadas registradas en los servicios públicos de empleo. **Este índice de paro del 11,7%** constata un descenso de los niveles de desempleo que viene dándose en los últimos tres ejercicios.

Mungia se encuentra en niveles de desempleo por debajo de Bizkaia (14,4%), Euskadi (13,3%) y de gran parte de municipios del Territorio Histórico como muestran los índices de paro registrados del mes de diciembre de 2016 en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

**MUNGIA SE ENCUENTRA ENTRE LOS MUNICIPIOS DE MÁS DE 10.000 HABITANTES DEL TERRITORIO CON UN MEJOR COMPORTAMIENTO DE LOS NIVELES DE DESEMPLEO.**

Con el apoyo de Mungialdeko Behargintza, **236 personas se han insertado laboralmente** en 2016, habiéndose gestionado 255 ofertas de empleo de empresas de Mungia y la comarca. El 60,16% han sido mujeres, el 30,94% mayores de 45 años, el 41,10% personas de entre 30 y 44 años y el 27,96% menores de 30 años.

Evolución interanual de la tasa de desempleo en Mungia (diciembre)




Fuente: SISPE y Lanbide - Servicio Vasco de Empleo

2017ko martiko datuen arabera, Mungiak 984 langabetu eukazan erregistraturik zerbitzu publikoetan. Langabezia-tasaren beherakada horrek (%11,7) sendotu egiten dau azken hiru urteotako langabeziaren jaitsiera.

2016an Mungialdeko Behargintzak 236 herritarri lagundu eutsen lan-munduan sartzen.

# Internacionalización de las PYMES de Mungia

Mungialdeko Behargintza participa en el proyecto ***COME ON Bizkaia! 2 misiones, 2 acciones*** dirigido a promover la internacionalización de las PYMES de Bizkaia.

El proyecto, impulsado por Garapen y enmarcado en el programa de Fomento de Consorcios Internacionales de la Diputación Foral de Bizkaia, **se desarrollará en Lea-Artibai, Meatzaldea, Mungialdea y Txorierri.**

El objetivo es establecer relaciones comerciales con empresas de México y la región de la Triple Frontera (Argentina, Brasil, Paraguay) que nos han visitado la última semana de marzo.



# Licitación de *Bordatxua*



**La explotación será de 2 años prorrogables**

Tras abrir **el plazo para presentar propuestas** de gestión para el negocio de hostelería del snack-bar *Bordatxua*, varias personas gestoras del negocio han presentado una **oferta hostelera atractiva** destinada tanto a la población residente en el municipio como a visitantes.
El local está situado en un marco incomparable de Mungia, el pulmón verde de nuestro casco urbano, Torrebillela Parkea.

El establecimiento dispone de **cocina industrial instalada y operativa**, así como **aseo adaptado** a las necesidades de personas con movilidad reducida, espacio de **terraza y porche** exterior protegido por cortavientos.

La explotación será de **dos años prorrogables hasta un máximo total de tres años.**

*Bordatxua* ostalaritza-negozioa gestionatzeko proposamenak batu, aztertu eta adjudikazino-prozesua amaitu ostean, adjudikazinodunak urte bian (beste bat luzatu daiteke) gestionatuko dau Torrebillelako Parkean dagoan lokal hau.

# Mungiako Ostalariak eta mungiarrak inauterietan parte hartzen

Zezeilean "Ostalariak Inauterietan" lehiaketaren bigarren edizinoa ospatu zan. Mungialdeko Behargintzak antolatuta, Mungiako Udalaren eta Mungiako Merkatari eta Ostalarien Alkartearen laguntzagaz, 18 izan ziran western gaiari jarraituz euren lokalak apaindu eta langileak gaiari lotuta jantzi ebezan tabernak, iaz baino 4 gehiago. Batukale Samba taldea eta trikitilari bikote bat izan ziran aratuste arratsaldea girotzeaz arduratu ziranak.

Taldeen mozorro lehiaketan, bestalde, mungiarrek euren irudimena ondo landu dabela erakutsi eben. Hona hemen lehiaketa irabazi eben "Azken Mungikanoak" taldea.

Aurtengo parte-hartzaileen zerrenda:

| | |
|---|---|
| The Nook | Bar Ramontxu |
| Aketxe | Ez Esan Inori |
| Izarra | Torpedo Gorria |
| Bar Txomin | Landetxo |
| Berezi | Mungiberri |
| Korrontzi | Pitipin |
| La Cabaña | Kos Taska |
| Urgoiti | Ikusi Taberna |
| Aterpe | Eguzkilore Station |



Lokalik Oneraren Saria *Ez Esan Inori* tabernak jaso eban.



Lokalik Gogokoenaren saria berriz, *Bar Ramontxu*-k irabazi eban.

**Irabazleak aukeratzeko Facebook-eko herri bozkaketan ia 800 lagunek hartu eben parte** eta 50€-ko balioko erosketa-bono batzuk zozketatu ziran danen artean.
Parte-hartzaile guztiak zoriondu gura doguz egindako lan ikusgarriagaitik eta herriari emondako bizitasunagaitik.

Este año 18 establecimientos hosteleros han decorado sus locales con ganas e imaginación siguiendo el tema de western para participar en el Concurso de Hostelería en Carnavales. Asimismo, han sido muchas las personas que han tomado parte en el Concurso de disfraces en grupo.

## OSTALARITZA JARDUNALDIAK

Joan dan zezeilean, ostalaritza bizibarritzeko asmoagaz, Mungialdeko Behargintzak antolatuta, ostalaritza jardunaldi bi antolatu ziran Mugire txokoan. Topaketa honeetan herriko hainbat ostalarik eta sektoreko agenteek hartu eben parte. Alkarlan horretan, sektorearen azterketa egin zan eta herriko ostalaritzarentzat onuragarriak izango litzatekezan proposamenak sortu ziran.

Con intención de revivir la hostelería del municipio, el pasado febrero se llevaron a cabo dos jornadas de hostelería.

# Reposición de la red de abastecimiento de agua en Llona y Trobika

Las y los vecinos de Llona y Trobika **verán mejorado el servicio de agua** gracias a las obras e instalaciones que se llevarán a cabo para reponer la red de abastecimiento.

**LA LICITACIÓN DE LA OBRA YA SE HA CONCEDIDO POR UN IMPORTE DE 114.584,86€.**

La razón fundamental para esta reposición es el material de la tubería, el fibrocemento. Este tiene una baja resistencia ante los cambios de presión o las vibraciones generadas por trabajos ejecutados en las inmediaciones. Ello puede dar lugar a numerosas averías y roturas interrumpiendo el suministro de las y los abonados.



Tanto en Llona (foto) como en Trobika serán tenidas en cuenta las demás redes para el desarrollo de las obras.

Los materiales que lo sustituyen, PEAD 110 y 63 milímetros, ofrecerán más resistencia y, por lo tanto, será posible aumentar la presión de abastecimiento de agua.

Llona eta Trobika auzoetan ur-hornidura sarea hobetzeko lanak egingo dira. Obra horreetarako lizitazinoa egin ostean, lan hauek 114.584,86 euroko aurrekontua daukie.

# Auzoak jagoten

**Bide-zuloak konpontzeko eta argi-sistema hobetzeko lanak**

Mungiako auzoek berebiziko garrantzia daukie Udalarentzat. Hori dala eta, euren beharrizanetara egokitzen jarraitu gura dogu, gure auzokideei behar bezalako zerbitzuak eskainita. Horretarako, bide-zuloak konpontzen eta argiztapen-lanak egiten segiduten dogu.

Beste alde batetik, Birleko eta Trobikako bizilagunek euren auzoetako kale-argien sarea handitu egin dala ikusi dabe. Egindako inbertsino horri esker nekazal-gune batzuetan gauez askoz bere ikuspen hobea dago. 250 metroko azalera daukan obra horretan 15.000 euro inbertidu dira.





Argazkietan ikusten dan lez, Trobika auzoko Larragane errepidean egozan bide-zuloak konpontzea behar-beharrezkoa zan. Eta konponketa-lanak egin ostean, begi bistakoa da obra horreek auzokideei ekarri deutseezan onurak.





Por otro lado, las vecinas y vecinos de Billela y Trobika cuentan con una nueva ampliación de red de alumbrado público,lo que posibilita una mejora en la visibilidad nocturna de algunas zonas rurales. Para la extensión de 250 metros se han destinado 15.000€.

# Apostando por la eficiencia LED y el ahorro energético

60 luminarias de vapor de sodio serán sustituidas por lámparas LED en Zabalondo tras realizarse un estudio sobre las necesidades lumínicas de la zona.

### EL REEMPLAZO TRAERÁ CONSIGO UN GRAN AHORRO ENERGÉTICO.

El Ayuntamiento apuesta por este proyecto que supone una reducción de las emisiones de dióxido de carbono ($CO_2$) a la atmósfera, favoreciendo la sostenibilidad y el medio ambiente y creando un entorno más agradable.

Este cambio conllevará **un menor consumo eléctrico** ya que las luminarias, con un consumo de 150W de vapor de sodio a alta presión, serán sustituidas por 60 LEDs, la mitad con 75W de consumo y la otra mitad con 51W. Es decir, con una mitad **conseguiremos un ahorro energético del 50%** y con la otra un **66%.**

Este cambio implica y **un rendimiento lumínico mayor.** Igualmente, estos LEDs **aportarán seguridad y un aspecto renovado y** atractivo.

El proceso de licitación se ha llevado a cabo en marzo y cuenta con un presupuesto de 30.000 €.

### Efizientzia eta jasangarritasun energetikoaren aldeko apustua

Zabalondok argi publikoari jagokonean daukazan beharrizanak zehazteko egin dan azterlanean oinarrituta, sodio lurruneko 60 argi kendu eta euron ordez LED lanparak jarriko dira.

Aldaketa horrek **kontsumo elektrikoa murriztea** ekarriko dau, izan bere, sodio lurruneko argiek 150W-ko kontsumoa daukien bitartean, 60 LED barri horreen erdiak 75W gastatuko dau eta beste erdiak 51W. Beraz, energia kontsumoan %50 eta %66 aurreratuko da.

Udalak proiektu honegaz **atmosferara karbono dioxido ($CO_2$) gitxiago botatea lortuko dau**, eta ondorioz, jasangarritasuna eta ingurumena hobeto babestuko dira eta ingurune atseginagoa izango dogu.

Era berean, **mantentze-lanek kostu txikiagoa** ekarriko dabe eta segurtasun eta itxura barriztua eta erakargarriagoa bere bai.

**El Ayuntamiento apuesta por este proyecto que supone una reducción de las emisiones de dióxido de carbono ($CO_2$) a la atmósfera, favoreciendo la sostenibilidad y el medio ambiente y creando un entorno más agradable.**

# Putzu Septikoen kudeaketa

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) putzu septikoak kudeatzeko zerbitzua jarri dau martxan. Zerbitzu hori interesa daukan edonork eskatu lei.

Etxe baten edo biren putzua –edo 5 m3-rainoko edukiera daukana– **garbitzeak eta garraiatzeak 220 euroko prezioa dauka** (egiten dan bakotxeko). Dana dala, desplazamendu berean putzu bat baino gehiago garbitu ezkero, beherapen bat egiten dabe prezio horretan.

Putzua garbitzeko erabagia titularrak hartu behar dau. Gero, zerbitzu hori BBUPri eskatu eta, putzua hutsitu eta garbitzeko zerbitzuaren garbiketa-tasa ordaindu ostean, zerbitzua egingo dauen enpresea bera jarriko da hartu-emonetan interesdunagaz eguna eta ordua adostuteko.

Putzuak garbitzeko **zerbitzua erabili gura dabenek 94 487 31 87 telefono zenbakira deitu** edota ondoko web-orrietan kontsutatu ahal izango dabe zerbitzuen ganeko informazinoa: **www.consorciodeaguas.eus** eta **www.mungia.org**



Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia ha puesto en marcha **un servicio de gestión de fosas sépticas** para quienes lo deseen. El precio asciende a 220 euros por cada limpieza y transporte solicitado para fosas de una o dos viviendas, o hasta 5 m3, aunque hay reducciones por limpiezas de más de una fosa, en el mismo desplazamiento.

**Aquellas personas interesadas y titulares de viviendas pueden llamar al teléfono 94.487.31.87** o consultar **en www.consorciodeaguas.eus y www.mungia.org cuando quieran limpiar la fosa.**

# Ekintza interkulturalak Alemaniako ikasleekin

Alumnas y alumnos alemanes visitaron Mungia a comienzos de abril, brindando la oportunidad de compartir y aprender diferentes tradiciones e idiomas con nuestra juventud. El Gaztegune organizó actividades con el fin de favorecer los vínculos entre las diferentes ciudades, fortalecer las relaciones en inglés, impulsar la multiculturalidad y la unión y enriquecer la formación de nuestra juventud.


Alemaniako ikasleek itzel disfrutatu eben antolatuko jarduereetan parte hartzen.

Apirila hasieran Alemaniako ikasle talde bat izan genduan bisitan Mungian. Aukera ezin hobea izan zan bertoko gazteek eta kanpokoek alkarren ohiturak eta hizkuntzak ezagutzeko.

15 urteko ikasleek euren **ingeles-ezagutzak hobetzeaz aparte, Gaztegunean antolatutako ekintzetan parte hartu** eben. Mahai jokoak, jolas jarduerak eta karaokea egon ziran, besteak beste. Musikeagaz bere gozatu eben.

Honeexek izan ziran **helburu nagusiak**: beste hiri batzukaz **adiskidetasun-loturak sortzea, atzerriko ikasleakaz ingelezez sortutako hartu-emonak sendotzea, kultura-aniztasuna sustatzea, alkartasuna indartzea eta gazteen prestakuntza aberastea.**

# Hemen da atzera bere “ASAU BARIK!” ginkana birtuala




Hamabi urtetik gorakoentzako gazte-lehiaketa honek hainbat barrikuntza dakarz aurten. Oinarria ez da aldatu: lagun artean dibertitzea (talde-lana eskatuko da), herria hobeto ezagutzea, teknologia barriek emoten dabezan aukerak aprobetxatzea eta sariak irabaztea dira ginkana honen helburuak. Halanda bere, **edizino honek aldaketa nagusi bi** izango ditu igazkoaren aldean.

Batetik, igaz bezala, 5 proba egongo dira (2, 3 edo 4 kideko taldeetan egin beharrekoak) baina urtean zehar banatuta. **Proba bi udabarrian izango dira, bat udan eta beste biak udagoienean.** Gaztegunearen facebook-ean (www.facebook.com/mungia.gazte) eta Udalaren web-orrian (www.mungia.org) argitaratuko dira.

Eta bestetik, **proba bakotxak bere saria izango dau,** izan bere, banan aterako dira eta independienteak izango dira. Hori bai, bostak amaitu ostean, sari berezi bat zozkatuko da proba guztiak osatu dabezanen artean.

Proba interesgarriak egitea eta sari ederrak irabaztea, horixe da ginkana honek eskaintzen deuskun erronka.

## Vuelve la gincana virtual ASAU BARIK!

Esta edición contará con dos novedades con respecto al año pasado: las pruebas se repartirán durante el año y cada una será independiente (con su propio premio).

# Ttipi-ttapa, ttipi-tappa... Korrika!!!



Euskeraren aldeko jaiak apirilaren 5ean zeharkatu eban gure herria

**MUNGIAK BETI EGIN DAU EUSKERAREN ALDE ETA HOLANTXE EGITEN JARRAITUKO DAU, EUSKERA GURE IDENTIDADEAREN OINARRIA DA ETA.**

Bere 20. edizinoan, pasa dan apirilaren 5eko gauean gurutzatu eban Korrikak Mungia. **Euskeraren aldeko pausuek Mungiako kaleak bete ebezan, hainbat alkarte eta herritar batuta ekimenaren inguruan**. Korrika eguna heldu orduko, eta giroa berotzen hasteko, programazino kultural oparoa prestatu eban Korrika Kulturalak gure herrirako, Udalaren laguntzagaz batera.

**Etxeko txikientzat, *Pupu eta Lore, haizearen herria*** ikuskizunaren bi emonaldi euki genduzan Olalden. Ikuskizun honek Imanol Urbietaren kantuak ditu oinarrian, umeek eta aitita-amomek alkarregaz batera olgetako sortuak.

**Doako bertso saioa** bere egin zan Mugire Txokoan. Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartearen eskutik, Miren Amuriza, Xabat Galletebeitia, Nerea Ibarzabal eta Aitor Esteban igo ziran oholtzara.

**Euskeraren bidez batzeko bidea egiten dau Korrikak.**

Azkenik, ***Euskaratzen* antzezlanak** 8 euskera-ikasle zoro eta zoragarri, irakasle sinonimozale bat, eta ikasgela konpartitzen daben musikari biren arteko gorabeherak ekarri ebazan gure artera. Mungialdeko Antzerkizaleen Elkarteagaz batera antolatutako emonaldia Torrebillelan eskaini zan.




## Corriendo a favor del euskera

En su 20 edición, la Korrika cruzó Mungia el pasado 5 de abril. Los pasos a favor del euskera llenaron las calles de nuestra localidad uniendo a muchas asociaciones y personas, con la colaboración del Ayuntamiento.

Antes de su llegada,se prepararon varias actividades culturales para calentar el ambiente. Así, se pudo disfrutar del espectáculo ***Pupu eta Lore, haizearen herria***, un ***bertso-saio*** organizado por Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartea y la divertida obra ***Euskaratzen*** llevada a cabo por Mungialdeko Antzerkizaleen Elkartea.

# Olalde Aretoa hobetzeko egindako lanak

## Mejoras en Olalde Aretoa

Para mantener la calidad del servicio que presta Olalde Aretoa, se han realizado, entre otras, estas mejoras:

Velando por la **seguridad** del personal, asociaciones, compañías que actúan y público, se ha mejorado la iluminación, colocado telones ignífugos y ampliado los recursos escénicos.

Este proceso de mejora continuará para ofrecer el mejor servicio a personas usuarias de Olalde Aretoa.

Asimismo, con el nuevo sistema LED, Olalde consume la quinta parte de lo que consumía antes, mejorando en **eficiencia y sostenibilidad**.

En cuanto a **funcionalidad**, se han arreglado los circuitos.

**Este proceso de mejora continuará para ofrecer el mejor servicio a personas usuarias de Olalde Aretoa.**



Olalde Aretoaren instalazinoak hobetuz doaz egunetik egunera eta bide horri ekingo deutsagu.

**Segurtasunari, kontsumo energetikoari eta funtzionaltasunari erreparatu jako**

